

Ordizian, **2011ko martxoaren 25ean**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, **OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Belén Maiza Urrestarazu andrea	EA Taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA Taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**


Jose Luis Aramburu Otegi Jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

.- Txurruka jauna eguneko gai zerrendaren 10. puntuan joan egin da.



## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2011ko martxoaren 25ean egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.  
.....**3.orr.**
- 2.- Emakumeen nazioarteko egunaren adierazpena.  
.....**4.orr.**
- 3.- Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, Ordiziako Udalean gizartearen aldeko lanak arautzeko eta antolatzeko.  
.....**7.orr.**
- 4.-2011ko aurrekontua onartzea  
.....**10.orr.**
- 5.-2011ko urteko ekitaldiko Plantilla Organikoa.  
.....**27.orr.**
- 6.-2011 urteko ekitaldiko lanpostuen zerrenda.  
.....**28.orr.**
- 7.-2011ko Aurrekontuetan 2010eko gastuak sartzea onartzea  
..... **30.orr.**
- 8.-Udalak Ordizia Lantzen SA Elkarteari jabetza eskualdatzea  
.....**32.orr.**
- 9.- Euskara saileko diru-laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena.  
.....**39.orr.**
- 10.- Administrazio Orokorreko Teknikaria jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasuna.  
.....**36.orr.**

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

#### **GALDE-ESKEAK**


- Ipar-Hegoa Kooperaziorako partida.
- Haur Eskolarentzako ekarpenak.
- Lanpostuen balorazioa
- Gizartearen aldeko lanei buruz onartu den mozioa.  
.....**38.orr.**

### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA ORDUA: 8,00**

**BUKAERA ORDUA: 10,10**





Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman da.

## **1.-2011ko otsailaren 25eko ohiko bilkurako akta onartzea.**

### Proposamena

#### **2011ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jn.

Gazteleraz dagoen aktaren 13. orrialdean, berak esandakoaren 2. paragrafoan ez da behar bezala jasotzen adierazi zuena. Paragrafo horrek ondorengoa esan beharko luke:

*“Considera que la aprobación de esta Ordenanza supone un paso muy importante pero cree que hay que avanzar en la línea e ir más allá, en el sentido de establecer subvenciones individuales teniendo en cuenta los recursos económicos de las personas de la unidad convivencial”.*

#### Maiza and.

Euskaraz dagoen aktaren 7. orrialdean bere lehenengo interbentzioan eta lehenengo paragrafoan gaizkiulertu bat dagoela adierazi du, taldearen jatorria azaltzen hasi zenean ez du uste Idiazabalgo Kiroldegia aipatu zuenik, baizik eta herri-kiroletan aritzen den talde bat zela azaldu zuen.


Beraz, “Idiazabalgo Kiroldegian” testu zatia kenduko da.

#### Gonzalez jn.

Gaztelerazko aktaren 24. orrialdean, 3. puntuan, “Nazioen Mundua- Erabakitzeko eskubidea”ri buruzko mozioan, mozio alternatiboa aurkezten denean, 5. puntua sartzan dela ipintzen du, honakoa dioena “derecho a la vida y al ejercicio del resto de derechos con respecto a la misma” eta 5. puntua 6. puntua izatera pasatzen da. Hasieran puntu hori sartzeari baziren ere, bere ustez, azkeneko mozioan ez zuten esaldi hori sartzeko erabakirik hartu. Gainerako zinegotziak eta Alkate jauna kentzearen alde daude.

5. puntua kendu egin da beraz, EAK proposatutako mozioaren edukia geratzen da 6. puntua kendu da.

Akta onartu da, zuzenketak egin eta gero.



## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (Iturrioz andrea eta Asenjo jauna abstenitu egin dira ez zilerako bilkura honetara etorri).

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

### **2.- Emakumeen nazioarteko egunaren adierazpena.**

#### Proposamena


Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, Emankude/Emakumearen Euskal Erakundeak gure gizarteko erabakiguneetan emakumeak egotea bultzatu beharraren inguruko sensibilizazio-kanpaina jarri du martxan. Emakunderen iritziz, nahitaezkoa da gizon-emakumeen arteko harreman pertsonaletan eta sozialetan botere-oreka handiago baterantz aurrera egitea. Gogora ekarri du gizarte honek emakume gehiago behar dituela buru udaletan, aldundietan, unibertsitateetan, enpresetan, sindikatuetan nahiz enpresaburu gisa.

Emakundeak Emakumearen Nazioarteko Eguneko, hau da martxoaren 8ko kanpaina gure gizarteko erabakiguneetan emakumearen presentzia bultzatzera bideratu du. Kanpainaren leloa "Emakumeak aurrera" da, eta aditzera ematen du gizarte honek emakume gehiago behar dituela buru udaletan, aldundietan, gobernuetan, unibertsitateetan, enpresetan, sindikatuetan nahiz enpresaburu gisa.

Emakunderen iritziz, gizarteak urrats handiak eman ditu azken hamarkadetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean. Hala ere, datuek agerian uzten dute oraindik ezberdintasun handiak daudela emakumeen eta gizonen artean eskubideak, boterea, baliabideak eta onurak benetan lortu, gauzatu eta kontrolatzeko orduan.

Horretarako, beharrezkoa da gure gizarteko eremu guztietako (kultura, politika, ekonomia...) erabakiguneetara emakumeak heltzeko aukerak bultzatzea. Helburuak behar du izan emakumeen eta gizonen harreman pertsonaletan eta sozialetan botere-oreka handiagoa egotea. Gizarte osoak lagundu behar du emakumeak erabaki eta botere guneetara heltzeko eta horietan eragina izateko bidean dituzten oztopoak desagerrarazten. Eta horretarako, baloreen aldaketa bultzatzea guztiz beharrezkoa da.

Ildo horretan, Udal hau laguntza horren alde ageri da honako ADIERAZPEN honen bitartez:



## ORDIZIAKO UDALAREN ADIERAZPENA 2011ko MARTXOAREN 8a DELA ETA

### "Emakumeak aurrera: esparru guztiak, emakume guztiak"

Nazioarteko egun honen oroipenak XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran gertatutako zenbait ekintzetara garamatza. Zehazki, 1910ean 17 herrialdetako 100 emakume baino gehiago Copenhagen elkartu ziren, eta bertan Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izendatzeko proposamena onartu zuten. 1911. urtean egin zen lehenengo ospakizuna. Hortaz, aurten "Emakumeen Nazioarteko Egunaren" ospakizunen mendeurrena dugu. Aipatu egunak emakumeek gizonen pare izan eta gizartearen alor guztietan parte hartzeko aurrera eraman zuten iraultza odolgabea balioztatu zuen.

Horrenbestez, beste urte batez, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu. Eta testuinguru zail batean, baina, aldi berean, itxaropenez betekoan egingo dugu. Eta itxaropen hori errealitate bihur dadin, funtsezkoa izango da emakumearen indarra, ausardia, jakinduria eta ahalmena aintzat hartzea.


Gizarte-ongizatea krisi egoeran dagoen garai hauetan, inoiz baino beharrezkoa dugu hausnartzea nola lor dezakegun berdintasunezko gizarte-eredua, produktiboagoa eta eraginkorragoa, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezeztatuko dituen. Gizarte-politiken sare berria iruten lagundu behar dugu, gaur egungo gizarte honetan emakumeek duten gizarte-errealitatearekin bat etorriko den sarea. Halaber, gizarte-kohesioari uko egin gabe, gizarte-ongizatea ekarri eta enplegu gehiago sortuko duten eta gizon-emakumeen arteko desoreka murriztuko duten udal-politikak bultzatu behar ditugu.

Azken urteotan onartutako legeak eta planak (Genero Indarkeriaren aurkako Legea, Berdintasunerako Legea, Sexu osasunari eta ugalketari eta haurdunaldia nork bere borondatez eteteari buruzko legea, Banantze eta dibortziate arloan Kode Zibila aldatzea, sexu-esplotazio helburu hartuta gizakien salerosketaren aurkako plana, berdintasun-planak, eta testuinguru honetan, Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako I. plana) bere horretan balio handiko tresna positiboak dira, eta aukera ematen digute oraingo une honi inoiz baino egoera hobean aurre egiteko.

Emakumeek berdintasunean eta arlo guztietan parte hartzea lortu dugu formalki. Alabaina, errealitatea egoskorra da, eta parte-hartzeari eta erabakiak hartzeari dagokienez, oraindik ere desoreka nabarmena da.

Pribatukoaren ardurak oraindik ere gurea izaten jarraitzen du; gizonek horren inguruko kontzientzia hartzea eta familiako erantzukizunak elkarrekin banatzea lortzen ez badugu, emakumeek desabantailan jarraituko dute, argi eta garbi. Izan ere, berdintasuna 'erreal eta eraginkorra' izango bada, emakumeek, gizonetik baldintza-berdintasunean, kalitateko enplegua izan beharko dute, eta horrek pribatukoaren (etxeko lanak eta zainketak) berdintasuneko banaketa eskatzen du. Gizonen eta emakumeen arteko egiazko erantzukidetasun batekin orekatuko dira soilik emakumeen aukerak.

Pribatukoaren erantzukidetasuna eta publikoaren ahalduntzea dira pentsamolde matxistak



**baldintzatzen dituen egiturak positiboki eraldatzea ahalbidetuko diguten tresnak.**

**Emakumeak ezinbestekoak dira gure herrialdeak bere ongizate ekonomikoa, politikoa eta soziala berreskuratzeko. Lan-merkatuan baldintza beretan txertatzea funtsezkoa da gure produktibitatearen kalitatea hobetzeko, eta hazkunde ekonomikoa eraginkorragoa eta jasangarriagoa izateko. Horretarako, berdintasuna areagotzeko neurriei eusten jarraitu beharra dago; emakumeek enplegurako aukera izan dezaten, soldata-berdintasuna izan dezaten, eta gizon-emakumeek erantzukidetasun berbera izan eta lana eta familia berdintasunean uztar ditzaten. Justiziagatik, baina baita eraginkortasunagatik ere.**

**Emakumeak lan-merkatu egonkor eta kalitatekoan txertatzeak ekarriko lituzkeen aukerak eta indarra aintzat ez hartzeak abiarazitako erreformak porrotik gordinenera eramatea ekarriko luke, baita gizarte-kohesioa haustea ere.**

**Alabaina, borrokak borroka kolektiboa izan behar du. Gizarte osoak (gizon eta emakume guztiek) ekarri behar du herrialde honen aldaketa; ez soilik, gaur egun bizi dugun krisitik ateratzeko, baita gu guztiok babesteko eta krisi hori geroan berriro ez errepikatzeko ere. Horretarako, bizitza pertsonaleko, laneko eta familiako erantzukidetasunak giltzarri izan behar du gizarte-, lan- eta ekonomia-eredu berrian.**

**Martxoaren 8 honetan, Udalak emakumeek berdintasunaren alde egin duten borroka aitortu nahi du -beharbada, gure herrialdean azken hamarkadetan egin den eraldaketarik garrantzitsuena-, eta deia luzatu nahi die herritarrei guztiok elkarrekin Ordizia hobeko, bidezkoago eta berdintasunezkoago baten alde lan egiteko.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Azaldu du, urtero bezala, Berdin Sareak aurten ere adierazpen hau bidali duela, baina Berdintasun arloan udalerrian egin diren lanak kontuan hartuta, adierazpen hau moldatzea eta proposatzea erabaki dute Ordiziako egoerara hobeto egokitzen delako.


#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, EB/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

### **3.- Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, Ordiziako Udalean gizartearen aldeko lanak arautzeko eta antolatzeko.**

#### Proposamena

Ordiziako PSE-EE (PSOE)k ondorengo "mozioa" aurkeztu du, Udal honetako Osoko Bilkuran aztertu eta eztabaidatzeko.

#### **ARRAZOIEN AZALPENA**


Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak komunitatearen alde lan egiteko zehapenak jaso zituen gure zigor-sisteman. 2003an, 15/2003 Lege Organikoak Zigor Kodea aldatu zuen, eta komunitatearen alde egin beharreko lana ezartzen duen zehapena bultzada eman eta hobetu zuen.

Komunitatearen alde lan egitea ezartzen duen zehapena eskubideak kentzeko zigorra da, zigortuaren beraren onespenerik gabe ezartzerik ez dagoena. Zehapenak zigortua behartzen du herri-onurarako zenbait jardueratan lan egitera ordainik jaso gabe. Zigortuak, egindako delituarekin nolabaiteko antzekotasuna duten delituak kontuan hartuta, eragindako kalteak konpontzeko lanak edo biktimei sostengua edo laguntza emateko eginkizunak bete ditzake. 515/2005 Errege Dekretuan komunitatearen aldeko lanak egitea ezartzen duen zehapenaren erregulazioak xedatutakoaren arabera, aipatu lanak Espetxeen Administrazioak emango ditu, eta horretarako, hitzarmenak sina ditzake herri-onurako jarduerak garatzen dituzten beste Herri Administrazioekin nahiz erakunde publiko zein pribatuekin.

Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELeK udalak '*Komunitatearen aldeko lanak egiteko zehapena betetzeko bi erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmena*' izenekora atxikitzeko protokoloa eta prozedura ezarriak dituzte. *Honekin batera aipatu hitzarmenaren kopia atxiki dugu.*

Gure udalak aipatu hitzarmena sinatuta ez duenez, komunitatearen alde lan egitera zigortutakoek (gure udalerrian bizi direnak) maiz zailtasun handiak izaten dituzte ezarri zaizkien zehapenak gure udalerrian betetzeko, eta hitzarmena sinatuta duen beste udalen batek eta/edo erakunderen batek egiten dituen lan 'eskaintzen' mende egoten dira. Hori guztia komunitatearen alde egin beharreko lanen azken xedea zigortua berrezitzea eta gizarteratzea dela ahaztu gabe.

Jakin badakigu, zigorra jaso duten hainbat pertsona hilabeteak egoten direla zain komunitatearen aldeko lanak egiteko zehapena bete arte, ez baitago halako lanak egiteko eskaintzak egiten dituzten udal eta erakunde askorik; horrek, inolako zalantzarik gabe, neurriaren



eraginkortasuna murrizten du. Gure iritziz, Hitzarmenera atxikitzeak lehentasunezkoa izan behar du toki-administrazioaren laguntza-eginkizunen garapenean.

Azkenik, espetxeetako tailerretan lan egiten duten zigortuen lan-harreman berezia eta komunitatearen alde lan egiteko zigorra dutenekiko Gizarte Segurantzaren babesa arautzen dituen uztailaren 6ko 782/2001 Errege Dekretua aldatzen duen abenduaren 26ko 2131/2008 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera, Barne Ministerioak hartuko ditu bere gain komunitatearen alde lan egiteko zehapena betetzen ari direnen laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen kontingentziak (egiazki egindako lan-egunei dagozkienak); alegia, lege-aldaketaren ondoren, aipatu 'lanpostuen' eskaintzak ez die inolako kosturik sortuko udaleko diru-kutxei, eta, halaber, ez dute gizarte-segurantzaz izapiderik egin beharrik izango.

Bestalde, izaera bereko arau-hausteetatik datozen administrazio-zehapenak esku-dirutan ordaintzeak arazo sozio-ekonomiko eta familiarak sor diezazkieke diruz ordaintzerik ez duten pertsonenei eta/edo familiei horretarako baliabiderik ez dutelako, edo ordainduta ere egoera sozio-ekonomikoan edo familian eragin negatiboa izan dezakeelako, edo zigortua eta/edo familia parte hartzen ari den gizarte-heziketa ekimenean eragin negatiboa izan dezakeelako.

Horregatik guztiagatik, proposatzen dugu osoko bilkurak hartzea honako

## **AKORDIOAK**

**LEHENA.-** Eusko Jaurlaritzak eta Eudelek komunitatearen alde lan egiteko ezartzen diren zigorak betetzeko sinatuta duten hitzarmenarekin bat egitea.

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea bi erakundeen arteko lankidetzahitzarmenera atxikitzeke protokoloa (komunitatearen aldeko lanak egiteko zehapena betetze aldera) sina dezan.

**HIRUGARRENA.-** Komunitatearen alde lan egiteko beharrezkoak irizten diren plazak eskaintzea, xede horretarako eratuko den lantaldeak premiak eta bideragarritasuna aztertuta.


**LAUGARRENA.-** Aipatu Hitzarmenera atxikitzeke prozeduran ezarritako gainerako izapideak betetzea, eta EUDELera igortzea:

- Hitzarmenera atxikitzeke osoko bilkuraren akordioa.
- Hitzarmenera atxikitzeke protokoloa.
- Eskainiko diren postuetarako ezaugarri osagarriak.

**BOSGARRENA.-** Udalaren eskumenekoak diren arloetan, 'komunitatearen aldeko lanak' izaera bereko arau-hausteetatik etorritako administrazio-zehapenen ordezkotako zigor gisa hartzeko halako programek ematen diguten aukera aztertzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila





### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Aurreko Osoko Bilkuraren “galdera-eskarien” puntuan honetaz hitz egin zela azaldu du eta gaia Osoko Bilkura honetan aztertuko zela erabaki zuten.

#### Dubreuil jn.

Ordiziako herritar batzuk kexatu direla azaldu du, ezin izan dutelako ordezeko zigorrik bete herrian.

Orain arte arautua dagoena antolatzea garrantzitsua iruditzen zaiola esan du eta ezarritako zigorren ordezeko lanak egin behar dituztenen artean Ordiziako Udalak zenbat onar ditzakeen finkatzea garrantzitsua iruditzen zaio, eta diruzko zigorren ordezeko ere gizartearen aldeko lanak egiteko aukera aztertzea.

#### Gonzalez jn.

Mozioaren helburuak eta edukiak egokiak iruditzen zaizkio baina ez zaio gustatu mozioa egiteko era, talde politikoen arteko partaidetzan oinarrituta, onartzeko prozesu bat izan behar duela uste du.

#### Dubreuil jn.

Osoko Bilkuran onartzeko moduko edukia duela uste du, hori onartzean Tokiko Ordenantzan eta Araudian aldaketak egon daitezkeelako.


Horrekin batera gainera, gobernu taldea guztiarekin ados ez dagoela uste du, horregatik, Udaleko Osoko Bilkuran aztertzeko gai bat dela iruditzen zaio.

#### Alkate jn.

Beste alde batetik, mozioaren edukia aztertzeko denbora eduki dutela uste du, aurreko Osoko Bilkuran ere mozioaz hitz egin zutelako.

#### Gonzalez jn.

Beraiek mozioaren alde bozkatuko dutela adierazi dute, eta alderdi politiko guztiek babestuko dutela uste du, baina hala ere ez dago gauzak egiteko erarekin konforme.



## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

### **4.- 2011-04-05 Aurrekontua onartzea. Ordenantza aldatzea.**

#### Proposamena

2011ko martxoaren 16ko Osoko Bilkurarako Batzordean Alkate jaunak idatzitako aurrekontu proiektua aztertu zuen eta Osoko bilkurara bidaltzea erabaki zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

#### AKORDIO PROPOSAMENA


Alkateak proposatu eta idatzitako 2011rako Aurrekontu Proiektua onartu, kapitulukako honako laburpenaren arabera:

#### SARRERAK

ATALBURUA	IZENA	EUROAK.
1	Zuzeneko zergak	2.167.350
2	Zeharkako zergak	400.000
3	Tasa eta beste sarrera batzuk	1.840.608
4	Transferentzia arruntak	8.112.061
5	Ondare-sarrerak	100.335
6	Besterenganatzeagatiko benetako inbertsioak	2.796.408
7	Kapital transferentziak	732.470
8	Finantza-aktiboen aldaketa	45.000
9	Pasibo finantzarioen aldaketa	7.848.420
	GUZTIRA	24.042.652

#### GASTUAK

ATALBURUA	IZENA	EUROAK.
1	Langileen ordainsariak	4.786.500
2	Higiezin arruntak eta zerbitzukoak erosteko	6.098.124
3	Interesak	601.188



4	Transferentzia arruntak	1.452.249
6	Benetako inbertsioa	10.397.426
7	Kapital transferentziak	251.090
8	Finantza-aktiboen aldaketa	45.000
9	Pasibo finantzarioen aldaketa	411.075
<b>GUZTIRA</b>		<b>24.042.652</b>

Honako Aurrekontu hauen osaketak ematen du hori guztia:

**KORPORAZIOAREN BEREZKO AURREKONTUA,**


SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.	2.167.350	1.kap.	3.845.865
2.kap.	400.000	2.kap.	3.430.997
3.kap.	941.450	3.kap.	71.505
4.kap.	6.661.204	4.kap.	1.379.894
5.kap.	82.025		
6.kap.		6.kap.	614.975
7.kap.	537.470	7.kap.	251.090
8.kap.	45.000	8.kap.	45.000
9.kap.	237.144	9.kap.	391.575
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.071.643</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>11.071.643</b>

**SAN JOSE EGOITZAREN AURREKONTUA**

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap:-	736.775
2.kap:-		2.kap:-	1.797.942
3.kap:-	782.958	3.kap:-	
4.kap:-	1.450.857	4.kap:-	
5.kap:-	500		
6.kap:-		6.kap:-	
7.kap:-		7.kap:-	
8.kap:-		8.kap:-	
9.kap:-		9.kap:-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.534.717</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.534.717</b>

**HERRI ANTZOKIAREN AURREKONTUA**

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap:-		1.kap:-	78.660
2.kap:-		2.kap:-	78.425
3.kap:-	41.200	3.kap:-	50
4.kap:-	108.435	4.kap:-	
5.kap:-	7.500		
6.kap:-		6.kap:-	



7.kap:-		7.kap:-	
8.kap:-		8.kap:-	
9.kap:-		9.kap:-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>157.135</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>157.135</b>

#### MAJORI KIROLDEGIA SLren BEHIN-BEHINEKO BALANTZEA

SARRERAK		GASTUAK	
1.kap.		1.kap:-	125.200
2.kap:-		2.kap:-	485.260
3.kap:-	75.000	3.kap:-	15.000
4.kap:-	631.905	4.kap:-	72.355
5.kap:-	10.310		
6.kap:-		6.kap:-	387.900
7.kap:-	195.000	7.kap:-	
8.kap:-		8.kap:-	
9.kap:-	193.000	9.kap:-	19.500
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.105.215</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.105.215</b>

#### ORDIZIA LANTZEN SAren BEHIN BEHINEKO BALANTZEA


SARRERAK		GASTUAK	
1.kap:-		1.kap:-	
2.kap:-		2.kap:-	305.500
3.kap:-		3.kap:-	514.633
4.kap:-		4.kap:-	
5.kap:-			
6.kap:-	2.796.408	6.kap:-	9.394.551
7.kap:-		7.kap:-	
8.kap:-		8.kap:-	
9.kap:-	7.418.276	9.kap:-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.214.684</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.214.684</b>

Honako Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua onartu:

#### 2011KO AURREKONTUA EGITEKO OINARRIAK

1.- 2011ko ekitaldi ekonomikoan, Ordiziako Udalak aurrekontuko hasierako kredituen kopuru osoko %1erainoko abalak mailega ditzake. Erakunde Autonomoek ezingo dute bermerik eman, ezta hirugarrenen aurreko edozein izaerako garantiarik hitzartu ere.

2.-Gastuen Aurrekontuko partida hauek, handitzeko moduko izaera dute, bakoitzari ematen zaion finantziazioaren arabera.



<u>Gastuak</u>	<u>Ingresoak</u>		
Foru Aldundiak herri-zergak	Sarrerak . Kontzeptuak	112.01,	112.02,
Foru Aldundiak		130.01 eta 130.02	
Derrigorrezko dirubilk.kontratua		392.01 eta 393.01 kontzept. sarrerak	
Ibilgailuak kentzeko		Ibilgailuak kentzeagatiko sarrerak.	
Bide-seinaleak mantentzeko (pilonak)		Aberiek sortzen dituztenen sarrerak	

Alkatetzaren dekretu bidez egingo da kreditua handitzeko espedientearen onarpena.

3.-- Funtzio-talde bereko barruan egin behar diren kreditu-aldaketak, arloko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu eta Alkateak egindako dekretuz

Partidak gaudituz gero eta dagokion Delegazioak ez baditu transferentziak proposatzen, Ogasun Delegazioak egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartuko ditu.

Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu transferentziak Osoko Bilkurari dagozkie.

Inbertsioetarako kredituak murrizteko balio duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da.

Gai horretan, Alkate jaunarentzako zehaztutako eskumen berak izango dituzte Erakunde Autonomoetako lehendakariak.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako gastuei erreparatuko dio: Baimenduan (A) edo Xedatutakoan (D) abenduaren 31an zegoena. Alkateari dagokio Espedientearen onartzea.

5.-Bata bestea gehituz gero, aurrekontuaren %5a baino handiagoko igoera ez den kopurua onar dezake Alkateak kreditu gehigarrien espedienteetan.

6.- 833.121.00.01 partidaren (Langileentzako maileguak) kreditua erabiltzeko, aurrez interesatuek eskatu beharko dute, proposatzen duten gastuaren beharra eta aurrekontua arrazoiturik. Ogasun delegazioak mailegua ematea komeni den ala ez iritziko du, eta aldekoa bada, Alkatetzaren dekretu bidez betearaziko da.

7.-Dedikazio osoa duten kargu politikoen eta beste zinegotzien ordainsariak izoztuta geratuko dira 2010 urteko ekitaldian zehar, krisi ekonomikoak kaltetutako pertsonen elkartasuna adierazteko helburuarekin.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, dagozkion gastu-partidetan kopuru bereko gastu-kredituak jarriko dira. Horiek jartzeko Alkate jaunaren baimena beharko da.

9- Honako hauen gastuak egiteko:


- Langileak kontratatzeke.

- Kanpoko lanak kontratatzeke.

- Mantenukoak bakarrik ez diren lanak udal zerbitzuek egitea.

- Inbetariagarria den materiala erostea

Alkatetzaren dekretu bidezko alde aurretiko onarpena eskatuko da, aurrez Kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da.



Alkatezaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldiaraziko da gastu-espediterearen tramitazioa.

Aipatutako gastuei dagozkien fakturak, dagokion Delegaziora eramango dira, oniritzia jasotzeko.

10.- 2 hilabete behin Kontu-hartzaileak aurrekontu partiden egoeraren berri emango die Delegazioetako arduradunei, eta behar diren neurriak hartu beharko dira onartutako kreditua ez gainditzeko.

Dagoen kreditua behar adinakoa ez dela uste bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren behar berriak daudelako, dagokion Delegazioak kreditu osagarria ematea proposatuko du; horretarako dagoen finantziazioa proposatuz edo kreditu-soberakina erabiltzeko eskatuz, balego.

11.- Dietak.- Alkate eta Zinegotziek, eta Udal langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere Udal kompetentziako gaiak gestionatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du izan.

Gastu horien kopuruak honako hauek izango dira:

Norberaren ibilgailuan Autonomia Erkidego barruko joan-etorria, 0,29 euro/km

Gosaria : 6.-euro, Bazkaria:16.- euro, Afaria:16.- euro.

Alojamendua: 3 izarreko ostatua.

Ikastaro edo azoketara joanez gero, bazkari, afari eta alojamenduetarako ezarritako mugak erabiliko dira. Erakunde arteko harremanengatik horiek baino gastu handiak egin behar direnean bakarrik estaliko ditu Udalak, baina aurrez dagozkion fakturak ekarri beharko dira.

12.- Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan buruzagi, funtzionario edo Korporazio kideek behar ez diren ordainketak itzultzeko ardurak izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera.

Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurratik, erru edo arduragabekeria larriengatik legez-erabakirik gabe erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela era, gastu eta ordainketen agintariak eta Kontu-hartzaileak desegokia dela idatziz ohartarazten ez duen bitartean, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatezaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, 360,- euro baino gutxiago balio dutenean, hala era, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du inolako eskumenik inoren esku utzita, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.artikuluaren ezarritakoak ditu bere esku.


15.- Honako hauek izango dira kredituen lotura juridikoen mailak :

Programa funtzionala eta kontzeptua :

Transferentzia arruntak eta kapitalekoak

Benetako inbertsioa

Aktibo finantzieren aldaketa.



Funtzio-programa eta kapitulua :  
2 kapitulua  
Finantza-gastuak  
Pasibo finantzarioen aldaketa  
Langile gastuei dagokion kapitulua

2. kapituluko partida askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta partida askotako kredituak agortu ez daitezzen (kredituen lotura juridikoaren mailak estu-estu aplikatuta), kontu-hartzailetzaren kontrola 2007ko azarora arte egingo da aurrekontu-partidan.


Gainera, honako partida hauei urte osoan jarraipen banakatua egingo zaie, nahiz eta azkenean artikuluko honen hasieran ezarritako kredituen lotura juridikoko mailak aplikatu.

PARTIDA	IZENA
226.111.00.02	Protokoloko ekintzak, Gobernu organoak.
231.111.00.01	Dietak, joan-etorriak, Gobernu organoak.
213.222.11.01	Udaltzaingoko ibilgailuak mantentzeko.
210.222.12.01	Trafikoko bide-seinaleak mantentzeko.
211.422.12.01	Eraikinen mantenua, Urdaneta ikastetxea
212.422.12.01	Makina,lanabes eta tresnak mant. Urdaneta:
227.432.10.07	Hirigintzako estudio teknikoak.
212.433.00.01	Makina,lanabes eta tresnak mant., kale argiteria
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategiak mantentzeko. Parke eta lorategiak
210.441.20.01	Makina,lanabes eta tresnak mant., Saneamendua
226.451.10.99	Kultur ekintzak.
226.454.11.99	Herriko jaiak
226.454.12.98	Euskal Jaiak. Beste ospakizun batzuk.
226.454.12.99	Euskal Jaiak. Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak.
226.454.13.99	Eguberria.
210.511.00.01	Kaleak mantentzeko.
226.622.31.91	“Artzain eguna” azoka
226.622.31.92	Erdi Aroko Azoka
226.622.31.97	Ardoaren azoka.
226.622.31.99	Eguberriko feria berezia.

16.- Ordainketak Ordainketak egiteko ohiko metodoa bankuko transferentzia izango da. Udal Kontu-hartzailetzan faktura sartzen denetik edo obra egiaztapena ateratzen denetik 60 egun baino lehen ordainduko dira, ,aurrez ordaintzeko oniritzia edo adostasuna badute.

17.-Udaleko Osoko Bilkurak, 2007ko maiatzaren 10ean egindako bileran, urte anitzeko gastu bat onartzea erabaki zuen, hiru urtekoa, Ordiziako toponimia jaso eta finkatzeko, eta gastuaren banaketa honakoa izan zen:

2007 urtea: beka + Euskaltzaindia (15.200 euro). 2008 urtea: 20.199,85 euro eta 2009 urtea: 20.788,19 euro.



Beste alde batetik, 985 zenbakiko Dekretu bidez 2008-10-27an 2008 eta 2009rako urte anitzeko gastu bat onartu zen, antolakuntza ikerketa bat eta lanpostuen balorazio bat egiteko, eta gastuaren banaketa ondorengoa izan zen:

2008 urtea (14.023,24 euro) eta 2009 urtea (29.986 euro).

500/1990 Errege Dekretuko 83.1 artikulua betetzeko oinarri hauetan jasotzen da.

18.- Lurralde guztietako udalerrri guztien arteko harreman eraikitzailea sustatzeko, gizarte ongizate, garapen ekonomiko, lurralde antolakuntza, ingurumen, kirol, kultura eta hizkuntza arloetako ekimenak sustatzeko, eta udalerrriaren eskumeneoak diren arloetan eragiteko, 2010eko proiektu-markoa ikusita, 7.500 euro aurreikusiko dira aurrekontuetan UDALBIDE Elkarlan Elkarterako zehazki.

Ordizian, 2010eko martxoaren 21a.

ALKATEA,

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Osoko Bilkurako deialdiarekin batera zinegotzi guztiei bidalitako Aurrekontu proposamenarekin alderatuta, hiru aldaketa daudela azaldu du:

- 1.- 14.500 € pasatzea Gazteria arloko gastu arruntetatik Inbertsioen partidara.
- 2.- Eguneko Zentroa.
- 3.- Alokairuan kale-garbigailu bat erostea.

Aurreko urtekoarekin eta aurreko ekitaldietakoekin alderatuta aurrekontua oso desberdina dela adierazi du. Aurreko Aurrekontuarekiko %1,80ko igoera egon dela azaldu du. Diru-sarrerak gutxitu badira ere, enplegu funtsarekin orekatzen da (+Euskadi09 batez ere), eta iaz Uren Partzuergoak egindako diru-sarrera berdintzen du. Oinarrizko zerbitzuak gutxieneko kalitate mailarekin bermatzea zen helburua, baita gizarte zerbitzuak, merkataritzaren sustapena eta enpleguaren sustapena ere, eta garapena Foru Aldundiko edo Eusko Jaurlaritzako zenbait programaren bitartez. Aurrekontu sozialak dira funtsean.

Zorren maila %22an jaitsi da.


Inbertsiotan (800.000 €) kontuan izan behar da batzuk 2010etik 2011ra pasatzen direla.

11.000.000 €koa da gutxi gorabeherako aurrekontua.

Gehien hazi den partida enplegua sustatzeko partida izan da.

85.000 €ko aurrezki arrunta dago soilik, eta hori da daturik kezkarriena.





### Maiza and.

Adierazi du gobernu taldean bertan Aurrekontuei buruzko akordiorik ez dutela lortu, eta horrek gogoeta bat egitera bultzatu dituela.

1.- Pasa den urtetik Zerbitzu Delegazioa kalea garbitzeko makina bat erosteko eskatzen aritu da eta erosketa horri buruzko eztabaida saihestu da eta agerian geratu da, eta gaur goizean, duela minutu batzuk, 8,00etan jakin du aurrekontuetan sartu dela kalea garbitzeko makinaren gastua, baina alokatzea aurreikusi dela, eta ez erostea.

Gaia hobeto aztertu behar zela uste du eta ez dela ezer egin, hori uste du. Erostea garestiagoa da, baina makina hauek erosteko, gastuaren %70 ordaintzeko diru-laguntzak daudela adierazi du.

2.- Bidegorriaren obretako proiektuak eta exekuzioa bertan behera geratu dira, adibidez RENFE-Diego Rivero kalearen arteko zatia.

3.- Kultur taldeek beraien jardueretarako erabiltzen dituzten lokalen eskasia eta egoera txarra. Gobernu taldeak ez die beraien beharrei erantzunik eman, borondate falta egon delako.

4.- Sail batzuk hazi egin dira eta beste batzuk jaitsi egin dira eta dauden bezala geratu. Adibidez Majoriko inbertsioak hazi egin dira eta jaitsi egin dira kultur taldeei eta erakundeei dagozkienak.

5.- Merkataritza sustatzea. Nanoteknologiari buruzko jardunaldi bat antolatuko da eta aurrekontua 90.000€koa izango da, eta jardunaldi honetan Udalak ezer ez zuela gastatuko esan bazuten ere, bertan dirua gastatzen hasi dira. Kurioso iruditzen zaio.

6.- Udalaren lanpostuen balorazioak eta Herri Antzokiarenak ere, aparteko beste kapitulu bat merezi du.

Aurrekontuak, funtsean, ez ditu beraien beharrak asetzen, eta horregatik proposamenaren kontra bozkatuko dute.

### Gonzalez jn.


Esan du ez dituela Aurrekontuak babestuko. Ez zaizkio parte-hartzaileak iruditu Aurrekontuak, eta horrekin batera, gobernu taldean ere ez dira bat etorri.

### Dubreuil jn.

Bere taldeak aurrekontuen alde bozkatuko duela esan du, beraiek nahi zuten guztia jasotzen ez badute ere, gutxienez gutxieneko baldintzak betetzen ditu une hauetan:

a.-Zorroztasuna.

b.- Krisiari aurre egiteko norabide egokia, arlo garrantzitsu batzuetan anbizioa eta berrikuntza erakusten dute.



c.- Gazteria politikaren plangintza egiten du, nahiz eta berak eremu honetan politikaren Plan Integrala defenditzen duen.

Ludoteka zerbitzua sortzea eta ipintzea egokia iruditzen zaio, ez da ondo diseinatua dagoelako (oraindik datuak falta dira) baina ideia irailean hastea da eta legealdi berrian horrelako zerbitzua martxan jartzea, askotan eskatutako zerbitzua baita.

d.- Merkataritza sustatzea. Duela urte askotatik hona bere taldeak merkataritza biziberritzeko eskatu du eta ildo honetan finkatu da EIOZren hobaria %95eko gehienezko hobariarekin.

e.- Irisgarritasuna hobetzea, Irisgarritasun Plana eginez eta etxebizitzak hobetzeko obren diru-laguntzetarako Ordenantza eginez.

f.- Inmigrazio arloan, eta Goiekik eskaintzen zuen zerbitzua desagertuta, udalerrian bertan egin behar zaio aurre egoerari. Herritarren %14 etorkina dela kontuan izan behar dugu eta harrera egiteko beharra dugu baina horrekin batera herritar bezala dituzten betekizunak erakutsi behar dizkiegu.

g.- Irakaskuntza arloko bitartekaritza zerbitzuak ere aurrekontuan azaldu behar du.

h.- Krisiak krisi, Jubilatuen Etxearen aldeko apustua egin da, gizarte bazterketa jasaten dutenen aldeko apustua etab.

i.- Etxebizitzaren sustapena Ordizia Lantzen SA Elkartearen bidez.

j.- Enplegu sustapena +Euskadi09ren bitartez eta INEM-CCLL hitzarmenen bidez. Partida garrantzitsu bat gordetzea proposatzen da, sor daitezkeen eta diru-laguntza jaso dezaketen programa berrientzako irekia egongo dena.

Aldeen arteko desberdintasun asko dauden arren eta gai batzuk bete ez diren arren, aurrekontuak onartzea garrantzitsua iruditzen zaio, Udala egonkortzeko, orain daudenentzat eta gero etorriko direnentzat.

### Kontu-hartzaile jaunak


Kalea garbitzeko makina alokairu bidez lortzea aurreikusi da aurrekontuetan, baina erosketa kontuan hartzeko modukoa iruditzen zaio, diru-laguntzak baldin badaude Maiza andreak esan duen bezala. Aztertu egingo da.

### Asenjo jn.

Alkate jaunari adierazi eta gogorarazi dio, D'Elikatuz zentrorako enbalatzeko makinarako gastua ere ez dutela aurreikusi.

### Alkate jn.

Esan dio kontrako jarrera hori duela hauteskondeen aurreko garaian dagoelako .



### Maiza and.

Hori esan izana gaitzetsi du, duela denbora askoz geroztik daudelako gai asko zintzilik.

Gonzalez jaunak berak ere adierazi du ez dela parte-hartzerik egon. Ez dute bat egin gai askotan nahiz eta aztertzeko denbora izan, eta gai batzuei aurre egiteko borondate falta egon da.

### Dubreuil jn.

Gobernu Batzordean desberdintasunak egon direla adierazi du, baina gauza askotan bat etorri direla uste du eta partida batzuetan desadostasunak dituzte, baina txikiak dira partida horiek.

Alkate jaunaren eta Zerbitzuetako Delegatuaren artean kalea garbitzeko makinak sortu dituen tirabirak soluzioa du.

Horrekin batera Maiza andrearekin ados dago, puztu diren partidak daudela esan duenean (PGOU, Merkataritza...) onartu diren planak eta programak daudelako izan da.

Horrekin batera, kultur elkarteentzako lokalak egoera txarrean daudela uste du berak ere, eta Herri Antzokiko eraikina erosteko negoziazioak egitea eta egoeraren araberako neurriak hartzea garrantzitsua iruditzen zaio.

Herri Antzokiko lanpostuen balorazioei dagokienez, uste du 2007an egin zenez geroztik gaia atzeratu egin dutela baina legealdi guztian urtero egon den arazo bat da eta hurrengo osoko bilkuran uste du onartuko dela atzeraeraginezko izaerarekin.

Udalaren lanpostuen balorazioari dagokionez, ez dago partidarik 2011n igoerak aplikatzea ez delako legezkoa, zerbitzu juridikoen irizpideen arabera. Hala ere, 2010 eta 2011ko diru-galera pixkanaka berreskuratzeko aukera egongo dela uste du.


Parte-hartzaileagoak izatea gustatuko litzaioke baina alderdi politiko guztiek aurrekontuak aztertzeko nahiko denbora izan dutela uste du.

### Gonzalez jn.

Alkate jaunak "hauteskunde garaiko egoeran daudela" dioenean, pentsatu nahi du ez dela bere alderdiaz ari.

Aurrekontuak, bere ustez, ez dira parte-hartzaileak (ekarpenak egiteko hasiera batean astebeteko epea eman zieten), nahiz eta gero denbora gehiago izan duten.

Hala ere, gobernu taldean akordiorik lortu ez izanak harritu du, Aurrekontua bezalako oinarrizko gai batean.



### Asenjo in.

Zerbitzu Saileko eta Agenda XXIeko Delegatu bezala, adierazi du, ez antolakuntza eta langile azpiegituran, ez ekonomia ikuspegitik (OPEA) ez dela zerbitzu orokorretako peioen (3 lanpostu) lanpostu hutsen deialdirik egin, ezta lorezaintzako peoiaren deialdia ere.

Eta kalea garbitzeko makinaz zer esan. Urte eta erdi kalea garbitzeko makinarik gabe. Ez dute kalea garbitzeko makina txikirik erosi eta orain alokatutako bat lortu nahi dute, jakinda makina erosteagatik ematen duten diru-laguntza galdu daitekeela.

Antolakuntza hobetzeko proposamena egiteko aholkularitza enpresa bat kontratatu dute, Gobernu Batzordearen oniritzia izan du eta ezarritako neurriak ez dituzte martxan ipini oraindik.

Aparejadoreak bi funtzio ditu, aparejadorearena bata, eta Zerbitzuetako arduradunarena bestea.

Eta bidegorriko zatiez zer esan. Bere horretan daude.

Proiektu bat dago, bidegorrien sare bat dago, baina bere horretan geratu da. Zatik garrantzitsuena geratzen da, RENFE-Diego Rivero bitartekoa, eta egin ez izana ezin da justifikatu diru eskasiarekin.

Horregatik ez dute akordiorik lortu. Koordinaziorik gabe jokatu dute.

Aldatutako proposamena bozkatuko da, eta honela idatzita dago:

#### Proposamena


Osoko bilkurarako Gaietako Batzordeak alkate jaunak idatzitako aurrekontu-proiektua aztertu zuen 2011ko martxoaren 26an egindako bilkuran, eta osoko bilkurara eramatea adostu zuen, bertan eztabaidatu eta onartzeko.

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Alkate jaunak idatzitako 2011rako aurrekontu-proiektua onartzea. Proiektuak honako kapituluak ditu laburbilduta:**

#### SARRERAK

KAPITULUA	IZENA	EUROAK.
1	Zuzeneko zergak	2.167.350
2	Zeharkako zergak	400.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.840.608
4	Transferentzia arruntak	8.112.061
5	Ondare-sarrerak	100.335
6	Inbertsio errealak besterentzea	2.796.408
7	Kapital-transferentziak	732.470



8	Finantza-aktiboen aldakuntzak:	45.000
9	Finantza-pasiboen aldakuntzak	7.875.170
<b>GUZTIRA</b>		<b>24.069.402</b>

#### GASTUAK

KAPITULUA	IZENA	EUROAK.
1	Langileen ordainsariak	4.786.500
2	Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	6.103.874
3	Interesak	601.188
4	Transferentzia arruntak	1.452.249
6	Inbertsio errealak	10.418.426
7	Kapital-transferentziak	251.090
8	Finantza-aktiboen aldakuntzak:	45.000
9	Finantza-pasiboen aldakuntzak	411.075
<b>GUZTIRA</b>		<b>24.069.402</b>


Honako aurrekontu hauek bat egitearen ondorio direnak:

#### UDALAREN BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-	2.167.350	Kap. 1.-	3.845.865
Kap. 2.-	400.000	Kap. 2.-	3.436.747
Kap. 3.-	941.450	Kap. 3.-	71.505
Kap. 4.-	6.661.204	Kap. 4.-	1.379.894
Kap. 5.-	82.025		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	635.975
Kap. 7.-	537.470	Kap. 7.-	251.090
Kap. 8.-	45.000	Kap. 8.-	45.000
Kap. 9.-	263.894	Kap. 9.-	391.575
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.098.393</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>11.098.393</b>

#### "SAN JOSE EGOITZA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

SARRERAK		GASTUAK	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	736.775
Kap. 2.-		Kap. 2.-	1.797.942
Kap. 3.-	782.958	Kap. 3.-	
Kap. 4.-	1.450.857	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	500		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	



Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.534.717</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.534.717</b>

**"HERRI ANTZOKIA" ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA**


<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	78.660
Kap. 2.-		Kap. 2.-	78.425
Kap. 3.-	41.200	Kap. 3.-	50
Kap. 4.-	108.435	Kap. 4.-	
Kap. 5.-	7.500		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	
Kap. 7.-		Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-		Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>157.135</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>157.135</b>

**MAJORI KIROLDEGIA SLREN AURREIKUSPEN BALANTZEA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	125.200
Kap. 2.-		Kap. 2.-	485.260
Kap. 3.-	75.000	Kap. 3.-	15.000
Kap. 4.-	631.905	Kap. 4.-	72.355
Kap. 5.-	10.310		
Kap. 6.-		Kap. 6.-	387.900
Kap. 7.-	195.000	Kap. 7.-	
Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-	193.000	Kap. 9.-	19.500
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.105.215</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.105.215</b>

**ORDIZIA LANTZEN SAREN AURREIKUSPEN BALANTZEA**

<b>SARRERAK</b>		<b>GASTUAK</b>	
Kap. 1.-		Kap. 1.-	
Kap. 2.-		Kap. 2.-	305.500
Kap. 3.-		Kap. 3.-	514.633
Kap. 4.-		Kap. 4.-	
Kap. 5.-			
Kap. 6.-	2.796.408	Kap. 6.-	9.394.551
Kap. 7.-		Kap. 7.-	



Kap. 8.-		Kap. 8.-	
Kap. 9.-	7.418.276	Kap. 9.-	
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.214.684</b>	<b>GUZTIRA</b>	<b>10.214.684</b>

Ondoren idatzi den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartzea:

### 2011KO AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIAK

1.- 2011. urteko ekonomi ekitaldian, Ordiziako Udalak bere Aurrekontuaren hasierako kredituen guztizko zenbatekoaren gehienez ere % 1eko abalak eman ditzake. Erakunde autonomoek ezin izango dute hirugarrenen aurrean abalak eman, ezta inolako bermerik hitzartu ere.

2.- Gastuen Aurrekontuko honako kontusail hauek handitu daitezke bakoitzarentzat ezartzen den finantziazioaren arabera.

<u>Gastuak</u>	<u>Sarrerak</u>
Foru Aldundiak herri-zergak kudeatzea	Sarrerak . Kontzeptuak 112.01, 112.02, 130.01 eta 130.02
Nahitaezko dirubilketarako kontratua	Sarrerak kontzeptuak 392.01 eta 393.01
Ibilgailuak kentzea	Ibilgailuak kentzeagatik sarrerak.
Bideko seinaleak mantentzea (pilonak)	Aberiak sortzen dituztenen sarrerak

Alkatetzaren dekretu bidez onartuko da kreditua handitzeko espedientea.

3.- Funtzio-multzo beraren barruan egin beharreko kreditu-transferentziak Arlo bakoitzeko ardura duen Delegatuak eskatu beharko ditu, eta alkate jaunaren dekretu bidez onartu beharko dira.

Kontusailak gainditzen badira, eta egoera horretan dagoen ordezkariak egin beharreko transferentziak egitea proposatzen ez badu, Ogasun Ordezkaritzak egokien irizten dituen kontusailak hartuko ditu.


Funtzio-multzo ezberdinen arteko kreditu-transferentziak Osoko Bilkurari dagozkio.

Inbertsioetarako kredituak murriztea ekarriko duten kreditu transferentzien espedienteetarako, Osoko Bilkuraren erabakia beharko da.

Gai horretan, Alkate jaunarentzat zehaztutako eskumen berberak izango dituzte Erakunde Autonomoetako buruek.

4.- Kontu-hartzaileak prestatuko du kredituak erabiltzeko espedientearen zirriborroa, horretarako honako faseetan geratu diren gastuei erreparatuko die: abenduaren 31n Baimenduan (B) edo Xedatutakoan (X) zeudenak. Alkate jaunari dagokio espedientea onartzea.

5.- Alkateak kreditu gehigarrien espedienteak onar ditzake, baina beti ere, metatuz gero, diru-sarrera arruntzen aurrekontuaren %5a baino gehiagokoa ez bada.



6.- 'Maileguak langileei' 833.121.00.01 kontusaileko kredituak eskuratzeko, interesdunek eskaera egin beharko dute, eta proposatutako eta aurrekontuan jasotako gastua justifikatu beharko dute. Ogasun Ordezkaritzak ebatziko du mailegua ematea bidezkoa den ala ez; oniritzia jasoz gero, alkate jaunaren dekretuz betearaziko da.

7.- Dedikazio eskusiboa duten kargu politikoen eta zinegotzien ordainsariak izoztu egingo dira 2011 honetan, krisi ekonomikoak kaltetu dituen pertsonetikiko elkartasunean.

8.- Aurrekontuan aurreikusitakoak baino diru-laguntza finalista handiagoak emateko, kopuru berdineko gastu-kredituak gaitu beharko dira dagozkien gastu-partidetan. Alkate jaunak baimenduko du gaitze hori.

9.- Honako hauen inguruko gastuak egiteko:

- Langileak kontratatzea.
- Lanak kanpokoekin kontratatzea.
- Mantentze-lan hutsak ez diren obrak edo lanak udal-zerbitzuek beraiek egitea.
- Material inbentariagarria erostea.

Alkatetzaren dekretu bidezko alde zuzeneko aurretiko onarpena behar izango da, eta aurrez kontu-hartzailearen txostena eskatu beharko da.

Alkatetzaren aldeko dekretua jasotzen ez den bitartean, erabat geldiaraziko da gastu-espeditentzaren tramitazioa.

Aipatu gastu horiei dagozkien fakturek, dagokion Ordezkaritzaren oniritzia jaso beharko dute.

10.- Bi (2) hilabete behin kontu-hartzaileak aurrekontu-partiden egoeraren berri emango die ordezkaritza; horiek behar diren neurriak hartu beharko dituzte onartutako kreditua ez gaitzeko.

Erabilgarri dagoen kreditua behar adinako ez dela irizten bada, bai aparteko gastuak izan direlako, bai Aurrekontua egiterakoan ezagutzen ez ziren beste premia batzuk daudelako, dagokion Ordezkaritzak kreditu-gehigarri ematea proposatuko du; horretarako, dagokion finantziarioa proposatu beharko du, edo kreditu-soberakina eskatu beharko du, halakorik balego.

11.- Dietak.- Alkate eta Zinegotziek, eta Udal langileek joan-etorriengatik sortzen zaizkien gastuak kobratzeko eskubidea izango dute, beti ere Udal kompetentziako gaiak gestionatzeko egiten direnean; horretarako, Korporazioak baimena emana behar du izan.

Gastu horien kopurua honako hau izango da:


Autonomia Erkidego barruko joan-etorria norberaren ibilgailuan, 0,29 euro/km.

Gosaria : 6.- euro. Bazkaria: 16.- euro, afaria : 16.- euro.

Ostatu hartzea: 3 izarreko hotela.

Ikastaroetara nahiz azoketara joanez gero, bazkari, afari eta ostatu hartzeko ere ezarritako mugak aplikatuko dira. Erakunde arteko harremanengatik aipatu horiek baino gastu handiagok egin behar direnean soilik estaliko ditu horiek Udalak, aurrez gastuei dagozkien fakturak ekarrita.





12.- Kredituak likidatzerakoan, agiriak egiterakoan edo konpromisoak hartzerakoan Udaleko buru, funtzionario eta kideek ordainketa oker guztiak itzultzeko erantzukizuna izango dute, hartuta dituzten eginkizunen arabera.

Edozein motako agintari eta funtzionarioek, iruzurragatik, erruagatik edo arduragabekeria larriagatik lege-xedapenak hautsiz erabakiak hartu edo egintzak egiten badituzte, horien ondoriozko kalte eta galerak ordaintzera behartuta daude Korporazioari.

Dena dela, gastuak eta ordainketak egintzen dituenak eta kontu-hartzaileak, aipatu gastu eta ordainketa horiek desegokiak direla idatziz ohartarazten ez badu, baimentzen dituzten behar adinako krediturik gabeko gastu guztien erantzule izango dira, baita aitortzen, kitatzen edo ordaintzen duten obligazio guztien erantzule ere.

13.- Salmentak.- Alkatezaren aginduz egingo da ezertarako ez diren gauzen salmenta, 360,- euro baino gutxiago balio dutenean, hala era, esan behar da Udalaren beste erabakirik behar ez duten salmentetarako oinarria dela hori.

14.- Alkateak ez du bere eskumenik inoren esku utzi, eta ondorioz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoak ditu bere esku.

15.- Kredituen lotespen juridikoaren mailak honako hauek izango dira:

Funtzio-programa eta azalpena:

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Inbertsio errealak

Finantza-aktiboen aldakuntzak.

Funtzio-programa eta kapitulua:

2. kapitulua

Finantza-gastuak

Finantza-pasiboen aldakuntzak

Langileen gastuei dagokien kapitulua.

2. kapituluko kontusail askoren gastuak urte guztian zehar sortzen direla kontuan hartuta, eta, kredituen lotespen juridikoaren mailak zorrotz aplikatzearen ondorioz, aipatu kontusailtako kredituak agortu ez daitezen, kontu-hartzailetzaren aurrekontu-partidarekiko kontrola 2011ko azarora arte egingo da.

Gainera, ondorengo kontusail hauei, banan-banan, urte osoan egingo zaie jarraipena, nahiz eta azkenean artikulua honen hasieran ezarritako kredituen lotespen juridikoko mailak aplikatu.

#### KONTUSAILA

226.111.00.02

231.111.00.01

213.222.11.01

210.222.12.01

211.422.12.01

212.422.12.01

#### IZENA

Protokolo-arretak, gobernu-organoak.


Dietak, joan-etorriak, gobernu-organoak.

Ibilgailuen mantentze-lana, udaltzaingoa.

Bide-seinaleen mantentze-lana, trafikoa.

Eraikinen mantentze-lana, Urdaneta ikastetxea.

Makina, lanabes eta tresnak mant. Urdaneta:



227.432.10.07	Hirigintzako azterlan teknikoak.
212.433.00.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana, argiteria.
212.434.11.01	Instalazio, parke eta lorategien mantentze-lana.
210.441.20.01	Makineria, instalazio eta lanabesen mantentze-lana,
saneamendua.	
226.451.10.99	Kultur ekintzak.
226.454.11.99	Herriko jaiak.
226.454.12.98	Euskal jaiak. Beste ospakizun batzuk.
226.454.12.99	Euskal jaiak. Asteazkena.
226.454.13.98	Eguberrietako apaingarriak.
226.454.13.99	Eguberriak.
210.511.00.01	Bide publikoen mantentze-lana.
226.622.31.91	“Artzain Eguna” azoka.
226.622.31.92	Erdi Aroko azoka.
226.622.31.97	Ardoaren azoka.
226.622.31.99	Eguberrietako ezohiko azoka.

16.- Ordainketak. Ordainketak, oro har, banku-transferentzia bitartez egingo dira. Ordainketak, faktura Udalaren kontu-hartzailetza departamentuan sartu, edo obra-ziurtagiriaren datatik 50 egun baino lehen egingo dira; betiere, nahitaezko oniritzia edo akordioa badu.

17.- Lurralde guztietako udalerrien arteko eraikitze-erlazioak sustatzea aintzat harturik, hizkuntza, kultura, kirola, ingurumena, lurraldearen antolamendua, garapen ekonomikoa eta gizarte ongizatea bultzatzera bideratutako ekimenetarako, eta udalerriek eskumenak dituzten gaiak bultzatzera bideratutakoetarako, eta 2011ko esparru-proiektua aztertuta, aurrekontuko 7.500 euro esleitu dira berariaz eta izenduz UDALBIDE Elkarlan Elkartearen alde.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3)


Kontrako botoak: 4 (EA 2, IU/EB-Aralar 2)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.



## **5.- 2011ko urteko ekitaldiko Plantilla Organikoa.**

### Proposamena

### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arazten dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriarekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzailetzak Udal honetako 2011 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OOAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2011 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehenena.- 2011 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plaza dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.**

**Bigarrenena.- Majori kiroldegia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak onartzea, 2011 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.**

**Hirugarrenena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**

**Laugarrenena.- Agiri hauek behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**


Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Alkate jn.

Lanpostuen balorazioa onartu eta gero Udalaren plantillan eta lanpostu zerrendan aldaketa garrantzitsua izango dela adierazi du.



## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 2 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

### **6.- 2011 urteko ekitaldiko lanpostuen zerrenda.**

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Idazkaritzak eta Kontu-hartzailtzak egindako arauzko txostena irakurri da, eta horri erantsi zaio lanpostuen gastuen azterketa eta aurreikusitako Sarrera Arruntekiko portzentajezko aldea.


Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2011 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**Lehen.- 2011 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN erudian dagoen bezala.**



**Bigarrena.- Majori Kiroldesia SL-ko eta OAAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2011 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.**

**Hirugarrena.-GAOn onartutako agiri hauek argitaratzea, toki-arautegi gaietan indarrean dauden lege xedapenei buruzko Testu bateratuaren 127 artikulua zehaztutakoa betez.**

**Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betiko onartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Leunda in.

Aurreko urteetan bezala proposamenaren aurka bozkatuko dutela adierazi du, Gazteria Teknikari postua edo Euskara Teknikari postua sortzeko beraien proposamenak ez dituztelako kontuan izan.

Azaldu du ez dutela Lanpostuen Balorazio batzordean parte hartu ez dietelako utzi.

Herritarren partaidetzarako marko osoa eta beraiak herritarren partaidetza bezala ulertzen dutena zeharo desberdina da. Eredu bezala jartzen dena aplikatu egin behar dela esan du.

Dubreuil in.

Demokraziaren oinarria gobernuan eta oposizioan lan egitea dela esan du. Gehiengo kontu bat da.

Lanpostuen balorazioa gobernu taldearen lana da.

Gonzalez in.

Herritarren partaidetza dagoela esan ondoren partaidetza politikoari atek ixtea larria dela uste du. Partaidetza eta oposizioa ezin dira elkarren aurka ipini.


Oposizioa, bozkatu dutenen %46a osatzen dute.

Dubreuil in.

Udal barruko partaidetza eta herritarren partaidetza desberdinak direla uste du.

Udal barruan araututa eta bideratuta dauden marko batzuk daude.

Herritarren partaidetza ez zegoen arautua eta horregatik hori bideratzen ari dira.



Udala beste gauza bat da. Udalean dena dago arautua. Beste gauza bat da gobernuaren jarrera. Badaki, bere esperientzian oinarrituta, oposizioa gogorra dela eta bozkatu dutenei egindako promesak ez betetzea gogorra dela.

Gonzalez jn.

Esan du, bozkatu dutenek, herritarrek, aukeratzen dituztela agintariak. Beraiek ez daude zapuztuta baina oposizioa kontuan izanda gauzak hobeto joan daitezkeela uste du nahiz eta onartu ez duela zertan horrela izan behar.

Dubreuil jn.

Legealdiaren hasieran indar politikoen artean egiten diren hitzarmenak zerbaitetarako daudela adierazi du.

Gonzalez jaunak

Legealdiaren hasieran oso argi azaldu zuten instituzio bezala Alkateren legimitatea babestuko zutela, nahiz eta ez onartu bere politika.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 2 (IU/EB-ARALAR)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.


### **7.-2011ko Aurrekontuetan 2010eko gastuak sartzea onartzea**

#### Proposamena

2010 urtean zehar aurrekontuan gorde gabeko gastu batzuk egin ziren zenbait partidatan.

2010 urtea itxi baino lehen, gainezkatze hauek konpontzen ahalegindu ginen ahal zen neurrian, Kontabilitatetik 94.443,19 euroko fakturak kenduz.

Gastu hauek 2011ko aurrekontuan sartu ahal izateko finantziazioan hiru aukera daude:



- 1.-2011ko partidetan kredituak handitzea, sartu behar dituzten gastuen neurri berean.
- 2.- 2010eko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetako arduradunei 2011rako aurreikusi dituzten gastuak bertan behera uzteko eskatzea, 2010ean sartu behar diren gastuen neurri berean.
- 3.-Bi aukerak erabiltzea, egindako gastuan borondate mailaren arabera.

Gaia onartzeko premia dago, ordaindu gabeko fakturak baitaude.

Gipuzkoako Toki-Erakundeen aurrekontua arautzen duen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua arabera, 2011ko martxoaren 16an Plenorako Gaien Batzordeak gaia aztertu eta gero, honako hau onartzeko proposamena egiten zaio Osoko Bilkurari.

#### AKORDIO PROIEKTUA

**2011 urteko Aurrekontuetan 2010 urteko gastuak sartzea, 94.443,19 euroko zenbatekoarekin.**

**Kreditu gehigarrien espedientea onartzea 2011ko aurrekontuetan 94.443,19 euroko zenbatekoarekin aipatutako gastuen inkorporazioa neurri batean finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Guztira 2010 urtean krediturik gabeko fakturen 94.000 €ko gastua sartzea dela azaldu du.

#### Asenjo jn.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean azalpen batzuk eskatu zirela esan du.

#### Kontu-hartzaile jaunak


Duela egun batzuk eskatu zuen informazioa utzi ziola esan dio.

#### Asenjo jn.

Proposamenarekin ados ez dagoela adierazi du.

#### Gonzalez jn.

Kontu-hartzaile jaunari eskatu dio azaltzeko zertan datzan urteko ekitaldi batetik bestera gastuak pasatzeko mekanismoa.



### Kontu-hartzaile jaunak

Erantzun dio esanez 2010eko gastuak 2011ra pasatzea dela eta diruzaintzako soberakinen aurka doala. Soberakina 500.000 €koa da gutxi gorabehera.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 4 (2 IU/EB-ARALAR, EA 2)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

### **8.-Udalak Ordizia Lantzen SA Elkarteari jabetza eskualdatzea**

#### Proposamena

2008ko maiatzaren 29an ohiko deialdian Osoko Bilkurak onartu zuen "Ordizia Lantzen SA" Elkarteak San Joan Eremuko etxebizitzaren eta urbanizazioaren garapen eta sustapen-lanak egitea.

Akordio honen bidez, Ordiziako Udalaren jabetzako eremu honetako birpartzelatze proiektuaren ondoriozko partzelak Elkarteari eskualdatu zitzaizkion kapital-zabalkuntza bidez, emandako lursailetatik eta lagapenaren %10aren ondorioz eratorritako partzelak.

Ordizia Lantzen SA Udal Elkarteak San Joan 22 HIEko A.30.7 lursailen bizitegi motako 6 etxebizitza eraikitze lanetan hasiko da. Zehaztutako lursaila %40,94an Ordiziako Udalarena da, eremuaren birpartzelazioaren arabera.


2011ko martxoaren 16ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**1.-ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarteari A.30.7. lursailaren jabetza pasatzea Elkarte honetako kapital-zabalkuntza bidez.**

**2.- Ordiziako Udala bazkide bakar duen "ORDIZIA LANTZEN SA" erakundeko gizarte kapitala zabaltzea, LAUROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA BARROGEITA BAT EURO ETA**





**HAMAR ZENTIMO eurora (93.641,10 €) zabaltzea, serie bakarreko HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST (15.555) akzio-jaulkipen bidez, HIRUREHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITik (386.880) LAUREHUN ETA BI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMALAUra (402.434) zenbatuta, biak barne.**

**3.- Ordiziako Udalera harpidetzea, guztia eta osorik, zabaldutako kapitala, Ordiziako Udalari dagozkion “San Joan” 22 HIEko Birpartzelatze Proiektuko A.30.7. lursailetakoko %40,94ko jabetzen ekarpen bidez, eta erregistroko inskripzio datuak hauek dira:**

**a.30.7 lursaila**

**Tolosako 2 zenbakiko Jabetza Erregistroa.**

**Liburukia: 2.190**

**Liburua: 157**

**Orria: 129**

**Lursaila: 8.288.**

**Inskripzioa: Birpartzelatzean 1. esleipena.**


**Lursailaren balorazioa egiteko, eta Kapitala zabaltzeko, Gipuzkoako Merkataritza-Erregistroak SERVATAS SA (Tasaziotarako Euskal zerbitzuak) hautatu du lan horretarako, eta tasazio txostenak erantsi ditugu eta kopuruak honakoak dira:**

**BERREHUN ETA HOGEITA ZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA SEI ZENTIMO (228.729,26 €), Ordiziako Udalaren jabetzako lursail horren balio osoa da, Ordizia Lantzen SARI lursailaren %40,94 pasako dio, LAUROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA HERUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (93.641,76 €).**

**Kapitala zabaltzeko burutu den eskualdatzearen balioa honela geratzen da: LAUROGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA HERUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (93.641,76 €).**

**4.- Jose Miguel Santamaría Ezeiza jaunari Ordiziako Udalaren izenean Alkate-Lehendakari gisa notario aurrean aurkezteko baimena ematea eta akordio honetan jasotako 1 eta 2 puntuetan zehaztutako kapital zabalkundea onartzea Eskritura Publikoan jasotzeko 3.i. puntuan zehaztutako lursailen portzentajearen eskualdaketa bidez.**

**Proposamena onartzeko gehiengoa: Osoa.**



## Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Alkate jn.

Jakinarazi du Udala San Joango lursail baten %40,94aren jabe dela, eta proposatutakoa lursailaren jabetza Ordizia Lantzen SA Udal Elkarteari pasatzea dela esan du, eta haren xedea etxebizitzaren sustapena dela.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

## **9.- Euskara saileko diru-laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena.**

### PROPOSAMENA


#### Proposamena

7/85 Legearen 25 artikulua, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, udalerriek bere eskumenen barruan herritarren beharrak aseko dituen ekintza eta zerbitzu publikoak sustatzeko eskubidea dute.

Lege honen 28 artikulua udalerriei Administrazio publikoari dagozkion ekintzez gain bestelako ekintza osagarriak antolatzeko eskumena ematen die, eta batez ere hezkuntza eta kulturari dagozkionak.

Herritarren behar eta xedek asetzeko, udalerriak baliabide desberdinak ditu, horietako bat diru-laguntzen bidez sustapen lana egitea da.

Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntzen araubide juridikoak azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautzen du, Diru-laguntzen lege orokorrak.



Aipatutako Legearen 17.2 artikulua herri entitateen diru-laguntzen oinarri arautzaileak ordenantza baten bidez onartu behar direla ezartzen du.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten duenaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.

49 artikulua jartzen duenaren arabera, tokiko Ordenantzen onarpenak honako prozedura jarraitu beharko du:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena.
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, akordioa behin-behineko izatetik behin betiko izatera pasako da.

Azaldutakoa ikusita, honakoa proposatzen da

#### AKORDIO PROIEKTUA

**1.- 2011 urteko euskara arloko diru-laguntzak emateko oinarrien hasierako onarpena.**

**2.- Oinarriak jendaurrera zabaltzea iragarki taulan edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko epean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, Udalak ebatziko dituenak. Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe oinarriak behin betiko onartuko dira.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra arautzeko lanean ari dira zerbitzu juridikokoak, baina egoki ikusten da euskara sustatzeko jardueretarako diru-laguntzak orain onartzea.

Euskararen arloko diru-laguntza guztiak bateratu dira eta ordenantzak beraz, hainbat eranskin ditu: Merkataria, enpresak, elkarteak eta erakundeak eta euskara ikasteko norbanakoentzako laguntzak.

Hasierako onarpena ematean GAO n argitaratuko da eta jende aurrera zabaldu eta gero alegazioak egiteko epe bat egongo da, behin betiko onartu aurretik.



## Leunda jn.

Adierazi du, beste batzuetan adierazi duen bezala, euskararen ikaskuntza doakoa izan beharko lukeela.

Proposamenean langabetu eta jubilatuentzako %100 diru-laguntza sartu beharko litzatekeela uste du eta gainerakoentzako %50, eta ez soilik asistentzia eskatzea, baizik eta ikastaroak gainditu izana eta ikaskuntza prozesuan aurrera egitea saritzea. Ahalegina egiten duenari oraingoa baino diru-laguntza handiagoa eman behar zaio eta diru-laguntza gutxitu aurreikusitako urratsak gainditu ez dituztenentzat.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (IU/EB-ARALAR)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

## **10.-AOTren jarduera pribatuaren bateragarritasuna.**

### Proposamena

Jon Amondarain Ayerbe jaunak egindako eskaeraren berri ematen da. Udal honek behin behineko funtzionario izendatu zuen Administrazio Orokorreko Teknikari gisa.


Eskaeran lan pribatua egiteko bateragarritasuna onartzea eskatzen du, hain zuzen ere.

2011ko martxoaren 21ean Idazkariak egindako txostenaren berri eman da bateragarritasun honeri oniritzia emanez. Abenduaren 26ko Herri-Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunen 53/84 Legearen 11tik 15a bitarteko artikulua, herri langileek lan pribatuak egiteko jarduna arautzen dutenak, ikusi dira.

Udalbatzarrari dagokio bateragarritasun honen akordioa onartzea.

2011eko martxoaren 16ko Plenorako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honako hau proposatzen da.

AKORDIO PROIEKTUA



**Jon Amondarain Ayerbe jaunari, behin behineko funtzionarioa Administrazio Orokorreko Teknikaria lanpostua betetzen ari denari, bere lan pribatuak egiteko bateragarritasuna onartu, txosten juridikoan aipatutako baldintza eta mugekin.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Alkateak azaldu du, Jon Amondarain jaunak, Udalaren AOT postua bitarteko izaeraz betetzen duenak Abokatuen Elkargoko kide izan nahi duela abokatu lanak egin ahal izateko eta horregatik bateragarritasuna onartzeko eskaera egin duela.

#### Asenjo jn.

Azken urteetan balio zuten hiruzpalau teknikari joan direla esan du eta hori zerbaitengatik izan daitekeela uste du. Autokritika egin behar dela eta hori zergatik izan daitekeen aztertu behar dela uste du.

Amondarain jauna oso profesional trebea dela uste du.

#### Gonzalez jn.

Funtzionarioak eskatzen duen bateragarritasuna onartzea ere garrantzitsua iruditzen zaio, teknikariak lanpostu horietan mantentzeko ona izan daitekeelako.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, IU-EB/ARALAR 2)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian hurrengo puntua aztertu da.



## **11.-Galde-eskeak.**

Leunda jaunak galdetu du ea zehaztu den Garapenaren Lankidetzarako behin betiko partida zenbatekoa den. Kopuru hori "gobernu organoak" 481 partidaren aurreikusitako gutxi jakinarazi diote.

Leunda jaunak adierazi du gastu korronteen %1a 129.000 € direla.

Kontu-hartzaile jaunak erantzun dio esanez %1a ez dela gastu arruntena, baizik eta diru-sarrera arruntena.

Beharbada ez da zehatz-mehatz azaltzen. Kopuruaren %1a 102.000 € izango lirateke gutxi gorabehera, baina diru-sarrera arruntetan ohikoak ez diren kopuruak zenbatzen dira.

.....

Leunda jaunak Haur Eskolari banatzen zaion diru-kopuruaz galdetu du.

Kontu-hartzaile jaunak erantzun dio esanez egiten den ekarpena defizitari aurre egiteko dela, oreka finantzarioa mantentzeko.

Duela bi urte ekonomia bideratzeko azterketa bat egin zen eta horretarako gaia begiratu eta aztertu behar da, orain oreka hori nola dagoen ikusteko.

Leunda jaunak esan du ez direla esleipenaren ekonomia eta administrazio pleguetako baldintzak onartzen, eta beraz, ez dela sinatutako kontratua betetzen. Prebarikazioaz hitz egin daitekeela uste du eta gaia serioa iruditzen zaio.

2011rako aurrekontuetan 89.000€ko ekarpen bat azaltzen da, kontratuaren arabera honek 35.000 € baino gehiagokoa izan ezin duen bitartean. Ez daki benetan prebarikazioa den baina gaia serioa dela iruditzen zaio.


Bere garaian, bere alderdiak honen berri eman zuen eta ez zieten entzun eta orain arazoak sortzen ari dira.

Idazkari andreaki gaiaz galdetu dio. Idazkariak azaldu dio kontratuaren baldintzak ezin direla aldatu esleipendunari egotzi ezin zaizkion bat-bateko kausek sortutako desoreka bat gertatzen ez bada behintzat.

.....

Asenjo jaunak salatu nahi du, udal Arkitektoa %75eko lanaldia izanik (beraiek eskatu dute behin baino gehiagotan %100ekoa izan beharko lukeela) eta Argiketari Arduraduna Majori Kiroldegia SLrako lanak egiten ari direla. Hori legezkoa den galdetu du, eta aginduak zeinek eman behar dizkien jakin nahi du, Kiroi Teknikariak agindu batzuk eman baitizkie.

Idazkari andreak erantzun die.



.....

Pedro Irastorza jaunak, Langile Batzordeko ordezkariak eta Osoko Bilkuran dagoenak, udalbatzako kideei esan die Lanpostuen Balorazioez hitz egin behar dela eta gaia aztertu behar dela, bere atzeraeraginezko izaeraz, eta defizit publikoa jaisteko Gobernuaren Dekretuaz.

Oraingoz, esan du, ez dutela presiorik sartuko, alderdi politikoei zuzendutako idatziaren ondorioz gaia bide onetik doala uste dutelako.

.....

Alfonso Valero jaunak, Langile Batzordeko ordezkariak eta Osoko Bilkuran dagoenak, gizartearen mesederako lanei eta askatasuna mugatzen duten zigorren ordezkari buruz onartu den mozioa aipatu du. Kaleko langileengan izango du eraginik handiena eta ez daude ados neurriarekin.

Gaia serio aztertu beharko litzatekeela uste du.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez onartutako mozioa horretarako dela, lan horiek arautzeko.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.